

DONOSTIA / Groseko Okendo kultur etxeak haurren eskutik emango dio hasiera hilari

Lau urtez gorako txikiak liburutegietara eramateko asmoz eginiko antzezlanaren eszenaratuko dute bihar

Donostia. Gros auzoko Okendo kultur etxeak haurren eskutik emango dio hasiera apirilari. Monda eta Lironda bikoteak Dinosaurio egitasmoa obra antzeztuko du euskeraz, 18.00etan, kultur etxeko areto nagusian. Sarrerak doan eskura daitezke tokian bertan 16.30etik aurrera. Haur Liburuaren Egunaren inguruan, antzezlan honen helburua lau urtez gorako haurrek jolasaren bitartez liburutegia hobeto ezagutzea da.

Kup taldea, San Ignacio elizan Bestalde, Gros auzoko San Ignacio elizan musika sakratuko kontzertua egingo dute gaur. Donostian egunotan burutzen ari den Musika Sakratuaren XX. Zikloko laugarren saioa burutuko dute. Gaurkoan, Kup Taldea izango da protagonista. Talde honetako partaideak gazteak izan arren, abesbatzen munduan eskarmentu handia dute. Saioa 19.00 etan izango da. Ziklo honetako azken kontzertua bihar izango da Loiolako parrokian, 20.30ean.